

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

*Hilario Ugarteburu
Meabebasterretxea*

*Berriatua,
Bizkaia
(1924-2013)*

Aurkibidea



Biografia



Berriatuko Milloi auzoko Ikaranagusi baserrian jaio zen. Aita bertakoa zuen eta ama Bolibarkoa. Aitak bi seme izan zituen lehen emaztearekin eta, alargundu ostean, haren ahizpagaz ezkondu eta beste 12 seme-alaba izan zituen, Hilario horietatik bigarrena. 1936ko gerra oso ondo gogoratzen du, 7 hilabetez frontea egon baitzen Berriatuan. 1945ean soldadutzatik ihes egin zuen eta Gurs-eko kontzentrazio esparruan egon zen hilabete batzutan. Handik, erbestean zegoen Jaurilaritzak paperak eginda, erresidentzia eta lanerako paperak eskuratu zituen eta Behe Nafarroan, Gamarten, egon zen baserriko lanetan, morroi modura. 19 urte egin zituen erbestean: 21 urte gaz joan eta 40gaz etorri. Santa Agedako koplaria izan zen 10 urte gaz hasita; koplak asmatzen zituen etxe bakoitzean. Bat-batean aritu izan zen bertsotan Berriatuan eta baita Iparraldean ere, hainbat bertsolari ezagunekin. Horrez gain, ikazgintzaz, sagardogintzaz... ere aritu zen berbetan. 43 urte zituela ezkondu zen, eta handik gutxira Amоротoko Goiogane baserrira joan ziren bizitzera. Goioganen egin zuen bizimodua ordudanik, alaba eta biloben artean.

Zintak

BRT-015

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea
- **Data:** 2011-10-21
- **Iraupena:** 68 min
- **Euskarria:** Bideo digitala

BRT-016

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiolea, Nerea
- **Data:** 2011-10-21
- **Iraupena:** 67 min
- **Euskarria:** Bideo digitala

Ugarteburu Meabebasterretxea, Hilario |
ahotsak.eus

Orr.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2025-11-22

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com